



2024 Memoria Korporatiboa

IMQ Igurco

Konpromisoa zure
ongizatearekin

IMQ Igurco

Zuzendariaren gutuna



Santiago Canales

IMQ Igurcoko zuzendari nagusia

Hazkunde- eta sendotze-urtea

2024. urteak aukera berrietara bultzatu gaitu IMQ Igurcon. Etxean zaintzen laguntzeko zerbitzu bat garatzearen aldeko apustu luzeari esker, Bizkaiko Foru Aldundiaren konfiantza izan dugu 7 eguneko zentzoren kudeaketa berritzeko eta Mungiaiko eguneko zentro berriaren lizitazioa lortzeko. Dagoeneko 8 zentro dira, 285 erabiltzaileekin, eta horietatik 5ek, etxeTIC ereduaren bidez, 725 familia baino gehiagori laguntzen diegu etxeko zaintzan. **Bizkaian zerbitzu horretarako erreferentea gara, eta zabaltzen jarraituko dugu.**

IMQ Igurco Alhóndiga taldearen egoitza berriko obrak amaitu izanak ere mugarririk bat ezarri du guretzat. Zentroa 2025eko lehen hiruhilekoan irekitzea aurreikusten da, eta lehen mailako espazioak eta teknologia ditu erabiltzaileei ahalik eta erosotasun eta ongizate handiena eskaintzeko. Nabarmenezkoa da IMQ polikonsultorio bat ireki dela eraikinaren behealdean, hainbat espezialitate medikorekin, eta horrek erosotasun handiagoa emango die erabiltzaileei eta haien senideei.

Baina ez hori bakarrik, **artatutako pertsoneri dagokienez ere hazten jarraitzen dugu, 2024a urte errekorra izanik.** Hala, 1.300 pertsona baino gehiago zaindu ditugu egoitzean, eta gure errekupeazio funtzionaleko unitateek 400 pertsona baino gehiago artatu dituzte; horietako asko bizi-kalitate hobean itzuli dira etxera. Era berean, 400 erabiltzaile zaindu ditugu gure eguneko zentroetan, eta beren etxeetarako telelaguntza-zerbitzuan eta etxeTIC zentroetan konfiantza izan duten familien kopuruaren hazkunde handiaren protagonistak izan gara (1.200 familia). Guztira, 3.400 pertsona baino gehiagok aurkitu dute segurtasuna eta lasaitasuna gure zerbitzuetan. Hainbeste familiak gure lanean jartzen duten konfiantzaren emaitza da, baita gure taldeen ahaleginaren eta dedikazioaren emaitza ere, egunero kalitate oneko arreta hurbil eta berritzailea eskaintzeko konpromisoa hartzen baitute.

Azkenik, 2025eko erronkei buruz dugun ziurtasuna nabarmendu nahi dut. Horietako bat zerbitzu humanizatuaren kultura hedatzen jarraitzea da, pertsona erdigunean jartzen duen zaintza-ikuspegiaren bidez, eta haren senideak eta lotura pertsonalak zainketa-prozesuaren etapa bakoitzeko funtsezko elementutzat hartzea. **IMQ Taldearekin batera nahi ez dugun bakardadeari aurre egiteko boluntarior-tza-programa bat** abian jartzea izango da gure beste helburu nagusietako bat urte berriari begira, bai eta erabiltzaileak etxeTIC zentro berrietan hedatzea eta IMQ Igurco Alhóndiga bete-betean jartzea ere.

Bikaintasuna ahalegin bateratuan oinarritzen dela sinetsita, IMQ Igurcon etorkizunari begiratzen diogu, urrats bakoitzak lorpen berrietara hurbiltzen gaituela jakinda.

01 GU 04 . or.

02 IMQ TALDEA 06 . or.

03 ERREFERENTEAK ADINEKOAK
ZAITZEN
MAGNITUDE NAGUSIAK 07 . or.

04 GURE ZERBITZUAK 10 . or.

05 PROIEKTU
ERALDATZAILEAK 18 . or.

06 EZAGUTZAREKIN ETA GURE INGURU-
NEAREKIN KONPROMETITUAK 19 . or.

07 KOMUNIKAZIOA ETA
GARDENTASUNA 22 . or.

08 EZAGUTU NAHI
ZAITUGU 23 . or.

01 GU

“

Adineko ahulak eta/edo mende-koak zaintzeko eragile eraldatzaile gisa aitortuak izan nahi dugu, eta gure zentroetan eta Euskadiko eremuko etxeetan zerbitzu soziosanitarioak bultzatu”

Asistentzia-eredu dinamikoa eta diziplinartekoa

IMQ Igurcon, asistentzia-eredua esku-hartzearen eta arretaren ideia dinamiko eta plastiko gisa ulertzen dugu. Adinekoen behar erreal eta aldakorretara bideratutako sistema bat, aldaketa horien ondorioak ahal den neurrian aurrerratu eta minimizatuz.

Adinekoen zerbitzura dagoen talde bat

Gure eredua diziplinartekotasunaren ideian oinarrituta dago. Horretarako, profesional-talde kualifikatu bat dugu, urtez urte hazten ari dena, asistentzia-kalitate handia bermatzeko, bai eta arreta profesionala, hurbila, pertsonalizatua eta giza arreta bermatzeko ere.

Gure xedea

Adinekoen eta haien senideen bizi-kalitatea hobetzea, zerbitzu soziosanitario onenak eskainiz. IMQ Igurco osatzen dugunok zaintza onenak bermatzeko lan egiten dugu, beren bizi-lehentasunen arabera.

Gure ikuspegia

Adineko ahulak eta/edo mendekoak zaintzeko eragile eraldatzaile gisa aitortuak izan nahi dugu, eta gure zentroetan eta Euskadiko eremuko etxeetan zerbitzu soziosanitarioak bultzatu.

Gure balioak



BEZEROA

maite dugu: Gure izateko arrazoia da



AUSARTAK

gara: Aurrea hartzen dugu, etorkizunak kezkatzen gaitu



GERTU GAUDE:

Konfiantza sortzen dugu, errespetua eta maitasuna eskaintzen dugu



TALDE

bakarra gara: pasioz, etikaz, arduraz eta konpromisoz



IRABAZLEAK

nahi ditugu: Ausartzen direnak, eredugarriak



Beti HOBEAK

izatea: sinesgarriagoak, errentagarriagoak, eraginkorragoak

02 IMQ TALDEA

Profesionaltasuna, kalitatea eta zerbitzua

Igurcon harro gaude Euskadiko osasun-sektore pribatuko konpainia liderreko eta Estatuko garrantzitsuenetako bateko kide izateaz: **IMQ Taldea**.

Osasunaren zerbitzura dagoen enpresa-talde indartsua

90 urte baino gehiagoko esperientzia duen enpresa-talde indartsu bat, bere jarduera ia 50 enpresa partaide-turen bitartez garatzen duena. IMQ Taldeak 385.000 pertsonari baino gehiagori eskaintzen die osasun-estaldura Euskadin, eta, horrez gain, 135.000 langileri ematen dizkie lan-osasunaren arloko zerbitzuak 6.000 enpresa baino gehiagotan.

Euskadiko osasun sare handiena

IMQ Taldeak, gainera, **1.800 profesional** eta Euskadiko osasun-sare pribatu zabalenak osatutako koadro mediko handia du, **22 zentro propio** eta espezialitate mediko-kirurgiko ugari dituena.

Etengabe hobetzen ari den osasun-taldea

Produktuen aniztasunak, zentro eta klinika propio berriak etengabe irekitzeak eta hiru lurraldeetan presentzia aktiboa izateak, eta bikaintasunarekin, profesionaltasunarekin eta zerbitzatzeko gironarekin duen konpromiso irmoak aukera ematen diote IMQ Taldeari eskaintza integral bat bermatzeko, bere bezeroek beren bizi-zikloan zehar behar izan ditzaketen behar guztiei erantzuna emango diena, **irtenbide pertsonalizatuak, berritzaileak eta kalitate onekoak** eskainiz.

03

ERREFERENTEAK ADINEKOAK ZAITZEN MAGNITUDE NAGUSIAK

Lehen mailako zentroen sare bat, **zugandik oso gertu**



+ 20 urteko
bizitza



+ 65 milioi
euro egituretan

7

Egoitzak

10

Eguneko zentroak

28

Apartamentu
babestuak

Egungo eta etorkizuneko **profesional onenekin**

Taldeko langileak



Praktiketako langileak




Bezero bakoitzaren beharrei erantzuteko plaza publikoak, pribatuak eta itunduak.

1.276 plaza guztira

Egoitza-zentroak: **861 ohe**
Eguneko zentroak: **365 plaza**
Apartamentu babestuak: **50 plaza**


Urtetik urtera gero eta jende gehiagok jartzen du **konfiantza guga**n

IMQ Igurco Euskadiko sektore soziosanitarioko eragile nagusietako bat da, eta lehen mailako zerbitzuak eskaintzen ditu, adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko eta gaitasun fisiko eta kognitiboak ahalik eta gehien mantentzeko diziplinarteko arreta bermatzen duen profesional-talde baten eskutik.



Fakturazioa: azken urteetako fakturazioaren bilakaera MC-tan

Urteko egonaldien kopurua



1.023
 pertsona, batez beste, egunean

■ Egoitzak
 ■ Eguneko zentroak


Erabiltzaileen eta senideen gogobetetzea

IMQ Igurcon, erabiltzaileen eta haien senideen gogobetetasuna gure asistentzia-lanaren funtsezko zutabea da. Horregatik, gogobetetze-inkesta bat egiten dugu urtero, gure egoitzetako eta eguneko zentroetako zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko. Horrela, hobetzeko aukerak identifikatu eta ongizate handiena sortzen duten praktikak sendotzen ditugu.

82%
 gogobetetze-maila

Asistentzia-adierazleak

Errekupeazio funtzionaleko unitateen eraginkortasuna



Osasun-arrikuak



Tratu onaren adierazleak



04 GURE ZERBITZUAK

Gure egoitza soziosanitarioak



IMQ Igorco Araba



IMQ Igorco Bilbozar



IMQ Igorco Forua



IMQ Igorco
Jose Mª Azkuna



IMQ Igorco Orue



IMQ Igorco Unbe



Zuregandik gertu daude,
adinekoak profesionaltasun
handienarekin zaintzeko”



IMQ Igorco Zorrozoiti


Beste kolaborazio batzuk

Arabarren

Gasteizko Arabarren zaintza-zentroaren kudeaketan parte hartzen jarraitzen dugu. Bertan, zerbitzu sozio-sanitarioen kudeaketan gure ezagutza guztia ematen dugu eta pertsona zentroan kokatzen duen IMQ Igurcoko zaintza-ikuspegia ezartzen dugu. Arabarren gizarte-ekimeneko kooperatibak kudeatzen duen egoitza-baliabideak eta eguneko zentroak eguneko zentroko 25 plaza, desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako 25 plaza eta Arabako sare soziosanitarioko 100 egoitza-plaza eskaintzen ditu.



Urteko egonaldien kopurua



*Zentroa 2023ko urtarrilean ireki zen, eta sarrerak modu progresiboan kudeatu ziren urteko lehen seihilekoan.

Zainketa espezializatuak

Errekuperazio Funtzionaleko Unitatea (EFU)

Arazo akutu bat berreskuratzeko fasean dauden eta berreskuratu daitekeen autonomia-galera duten pertsonetan espezializatutako zerbitzua da. Diziplina anitzeko talde batek parte hartzen duen errehabilitazio-aldi baten ondoren, pertsona etxera itzul daiteke, eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan batez beste 20 puntuko autonomia hobetuta, eta % 70 baino gehiago etxera itzultzen da.

Bizitza Amaierako Zainketa Unitatea

Era berean, laguntza profesionala, pertsonalizatua eta integrala eskaintzen dugu, **persona bakoitzaren premiei erantzuten diena, pertsonen duintasunarekiko errespetua bermatzen duena** eta giza tratua bermatzen duena gaixotasun aurreratu, progresibo, sendaezin eta tratamendu espezifikoki edo berehalako heriotzari erantzuteko aukerarik ez dagoenean.

	2020	2021	2022	2023	2024
Orue	16.854	15.641	13.390	12.602	11.518
Unbe	7.121	7.748	10.480	9.323	8.155

Egonaldi kopurua Orue eta Unbeko EFUn eta Bizitza Amaierako Zainketa Unitatean

Ortogeriatria	Aldakako, ornoetako, sorbaldako eta abarreko hausturak.
Neuro-errehabilitazioa	Garuneko hodietako istripuak (iktusa).
Gaixondoak	Ospitaleko edo etxeko egonaldi luzeen ondoren, gaitasun funtzionalaren galera prebenitzeko edo hobetzeko.

Gure Eguneko zentroak

Adinekoei eta haien zaintzaileei laguntzera bideratutako arreta zaindua eta profesionala eskaintzen dute..



Aiboa Getxo



Bilbozar



Estartetxe Leioa



Etxaniz Bilbao



Ondarroa



Otxarkoaga



Galdakao



San Adrián Bilbao



Ugao-Miraballes



Zorrozoiti

Zaintza ziurtatuaren kalitatea

20 urte baino gehiagoko ibilbidean, IMQ Igurcok eboluzionatu eta egokitu egin du adinekoentzako arreta-eredua, eta asistentzia-kalitateko estandar berrietara egokitu da. Horrek esan nahi du hobeto identifikatzen direla gure zentroetan sartzen diren adinekoei eragiten dieten sindromei eta gaixotasunei lotutako arriskuak. Asistentzia-kalitatearekiko konpromisoaren erakusgarri, IMQ Igurcok hainbat arau eta ziurtagiri txertatu ditu bere kudeaketa-sisteman:

ISO 9001 – Kalitatearen Kudeaketa



10 urte baino gehiagoko ibilbidearekin, Kalitatea Kudeatzeko Sistemak aukera ematen dio IMQ Igurcori **zerbitzuaren eten-gabeko hobekuntza eta kalitate bikaina** lortzeko beharrezkoak diren baldintzak eta kontrolak zehazteko.

UNE 179003 - Pazientearen segurtasunaren arriskuak kudeatzea



Pazientearen segurtasuneko arriskuak kudeatzeko araua IMQ Igurco Oruen ezarri zen 2018an, eta IMQ Igurco Unbera hedatu zen 2021ean, **egoiliarrentzat dauden arrisku espezifikokoak identifikatzeko eta minimizatze**ko helburuarekin.

ISO 14001 – Ingurumen-kudeaketa



2021az geroztik, jasangarritasunak, **baliabideen erabilera arduratsuak eta hondakinen kudeaketa eraginkorrakoak** aukera eman diote IMQ Igurcori Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria lortzeko.

“


3.400 pertsonak baina gehiagok gozatu dute gure zaintza ulertzeko moduz.”

IMQ Laguntza

IMQ Laguntzak gure ezagutza leku bakar batean biltzen du, gure bezeroek, haien senideek eta bezero ez direnek **zalantzak argitu ahal izan ditzaten eta** sektore publikoan zein pribatuan dauden **irtenbide soziosanitarioei buruzko informazio eta aholkularitza onena lor dezaten.**

Zerbitzu paregabea merkatuan

Doako zerbitzu honen bidez, adinekoari eta haren familiei informazioa eta aholkuak ematen dizkiegu, haien bizi-kalitatea hobetzeko erabakiak har ditzaten. **IMQ Laguntza zerbitzua telefonoz (946 62 04 00), e-mailez (imqayuda@igurco.es) edo aurrez aurre** eskura daiteke Zorrotzaurre eta Virgen Blanca kliniketan.




Azken urteetan IMQ Laguntzan artatutako kontsulten bilakaera

Gure zerbitzu kontsultatuenak 2024an: jasotako kontsulta guztien %

% 25	% 23	% 21	% 18	% 13
Egoitzak	Etxez etxeko laguntza	Telelaguntza	Errekuperazio Funtzionaleko Unitatea	Beste zerbitzu batzuk

Telelaguntza

Urteko 365 egunetan 24 orduz funtzionatzen duen zerbitzua. Bakarrik bizi diren edo konpainiarik gabe eguneko orduak igarotzen dituzten pertsonentzat pentsatuta dago, eta talde profesional batek lagunduta daudela sentitu nahi badute. Talde horrek, botoi bat sakatuta, larrialdi bat edo laguntza behar duen edozein egoera konpontzeko behar diren baliabideak mobilizatuko ditu.



Telelaguntza-zerbitzuaren onuradunen bilakaera

Etxeko zainketa-plana: IgurTEK / etxeTIC

Gure talde profesionalen ezagutza gure erabiltzaileen etxera eramaten dugu, mende-kotasun-egoeran dauden pertsonak ahalik eta denbora gehien eman dezaten etxean.

1. fasea – Balorazio Integrala – Galde-tegi erraz baten bidez, adineko pertsona-ren eta zaintzailearen egoera aztertzen da, eta bietan dauden arazoak, arriskuak eta laguntza-beharrak identifikatzen dira, ikuspegi holistikoa eta integral batetik.

2. fasea – Zainketa Plan Pertsonali-zatua – Zainketa-plana osatzen duten helburuak eta dagozkien esku-hartzeak/ekintzak ezartzen dira.

3. fasea – Zainketa-plana abian jartzea eta haren jarraipena egitea – Zainketa-plana abian jartzeko, esku-hartzeak egiteko eta horien jarraipena egiteko, plataforma baten eta tablet baten laguntza dago. Horiei esker, komunikazio arina dago adinekoaren eta/edo zaintzailearen eta IMQ Igurco enpresako profesionalaren artean.

Taldeko 3 eguneko zentro etxeTIC eredu bihurtu ondoren, eta Etxanizko zentroarekin bat eginda, urtean 750 erabiltzaile baino gehiagori eman zaie zerbitzua.

Mendekotasun-egoeran dauden eta zerbitzuaren erabiltzaile diren pertsonen profila honako hau da:

Mendekotasun-gradua	
I. GRADUA	% 46,5
II. GRADUA	% 32,9
III. GRADUA	% 20,6

Batez besteko adina	
83,1 GIZONEZKOAK	87,4 EMAKUMEZKOAK

Zaintzaileen profila honako hau da:

Zaintzailearen harremana			Batez besteko adina
% 31,8 Ezkontidea	% 57,8 Semea / Alaba	% 10,4 Beste batzuk	64,4



05 PROIEKTU ERALDATZAILEAK

Liderra etxeko zainketan

Azken urte honetan, Taldearen Eguneko 3 Zentro (Ugao-Miraballes, Estartetxe – Leioa eta Ondarroa) etxeTIC eredu bihurtu dira, eta eredu horren helburua mendekotasun-egoeran dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta etxean ahalik eta denbora gehien egotea da. Horri esker, eta Mungiaiko Eguneko Zentro berriaren esleipenari esker (etxeTIC eredu ere bada), etxeTIC ereduko eguneko zentro gehien dituen konpainia bihurtu gara (5), bai eta Bizkaia osoan artatutako etxekeen unitate gehien dituen konpainia ere (750, 2024an).

IMQ Igurco Alhóndiga

2025eko martxoan, IMQ Igurco Alhondiga inauraturako dugu, Taldearen zortzigarren egoitza. Egoitza berria Bilboko erdigunean dago – Concha Jenerala kalearen eta Fernandez del Campo kalearen artean, adinekoei eta haien familiei kalitateko arreta, segurtasuna eta hurbiltasuna eskaintzeko diseinututa. Zentroak 4.800 m²-ko azalera du, 10 solairutan banatuta, eta 4 bizikidetzta-unitatek osatzen dute, 79 egoitza-plazatarako.



Pertsonarengan Oinarritutako Arreta Integraleko Programa (POAI)

Gure zainketa-eredua finkatzeko programa hedatzen jarraitzen dugu, pertsonak ardatz hartuta. Azken urtean gure eguneko zentroetan proiektu bat abiarazi ondoren, ekimen bera abiarazi genuen gure bi egoitza-zentroetan, Araban eta Zorroztogoin, helburu berarekin: gure zaintza-jardunbide egokiak sendotzea eta pertsonengan oinarritutako zerbitzu-kultura finkatzea, egoiliarren ongizatea hobetzera bideratuta.

06

EZAGUTZAREKIN ETA
GURE INGURUNEARE-
KIN KONPROMETITUAK

Elkar hartuta, zu zaintzeko

Zerbitzu soziosanitarioen erakunde garen aldetik, IMQ Igorcon uste dugu irakas-kuntza, zentro anitzeko ikasketak eta beste erakunde batzuekiko lankidetzak ezinbestekoak direla **kalitate oneko arreta eta zaintza** eskaintzeko.

Ospitaleak: Gurutzeta, Basurtu, Urduliz, Galdakao-Usansolo, Santa Marina eta Gorliz

Erakunde Sanitario Integratuak (ESI): ESI Barrualde-Galdakao

Unibertsitateak: Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea Publikoa, Europako Unibertsitatea eta Valentiako Nazioarteko Unibertsitatea.

Lanbide Heziketako Zentroak: LHZ Gurutze Gorria, LH Otxarkoaga, LH Somorrostro, LHZ Iurreta...

Fundazioak eta gizarte

erakundeak: BBK Kuna, Fundación Claret, EDE Fundazioa, Bagabiltza Fundazioa, Academia de Ciencias Médicas de Bilbao...

Ikerketa-zentroak: Bioef (Beri-kuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioa, Biocruces (Ezkerralde Enkarterri ESiren Osasun Ikerketako Institutua) eta Nagusi Intelligence Center

Etorkizuneko gizartea prestatzen

Halaber, 2024an irakaskuntzarekin konprometituta jarraitu dugu, **parte hartzen dugun unibertsitate-masterren bidez:**

Zahartze Osasungarriari eta Bizi Kalitateari buruzko Masterra

Euskal herriko Unibertsitatea. Leioako Campusa.

Gerontologiako Unibertsitate Masterra (Ismene)

Deustuko Unibertsitatea. Bilbao

Biltzarrak eta jardunaldiak

Naiara Fernández gure asistentzia-zuzendariaren hitzaldia, **“Adinekoen arreta integrala eta bizi-kalitatea hobetzeko hauskortasuna identifikatzea eta jorratzea”** biosilver ekimenaren esparruan, Bizkaiko farmazialarien elkargoan, eta Bilboko zientzia medikoen akademiaren jardunaldi batean.

Gure asistentzia-zuzendariak, Naiara Fernándezek, Bizkaiko medikuen elkargoko mediku erretiratuen taldearen mintegian parte hartu zuen, **“Osasun mentala, osasun integrala”** hitzaldiarekin.

Naiara Fernández gure asistentzia-zuzendariak **“Zainketen plangintza aurreratu”** izeneko prestakuntza eman zuen Bizkaiko Foru Aldundiko profesionalentzat.

Busturialdeko Mankomunitatearen Zainduz programan parte hartu zuten Selene Sánchez Custodio eta Naiara Fernández gure profesionalek, **“Zainketarako eta autozainketarako trebetasunak”** eta **“Mendekotasunaren prozesua”** gaiari buruz hitz eginez, hurrenez hurren.

“Dementia duen pertsonaren abordatze integralari” buruzko prestakuntza eman zien gure asistentzia-zuzendariak Gernikako Ospitaleko batzorde soziosanitarioko profesionalei.

Gure asistentzia-zuzendari Naiara Fernándezen hitzaldia, **“Gutxiegitasun kardiakoa paziente nagusiarengan”** jardunaldian, Bizkaiko Medikuen Elkargoak eta Astra Zenecak antolatua.

Naiara Fernández gure asistentzia-zuzendariak Gorlizko Ospitaleko I. Geriatria Jardunaldian parte hartu zuen, **“Adinekoen ezaugarriak: arreta espezializatuaren beharra”** hitzaldiarekin.

Gure asistentzia-zuzendariak Gurutzetako Ospitaleko Etxeko Ospitalizazio Zerbitzuari **“Adinekoentzako Arreta Integrala”** ri buruz emandako prestakuntza.

Naiara Fernández gure asistentzia-zuzendariaren **“Nola zaindu adinekoak?”** prestakuntza eman zuen Deustuko Unibertsitateko “Pertsonak zaintzeko kultura aringarriantza” ikastaroan, Pía Aguirreche Fundazioak sustatuta.

Gizarteratzea eta laneratzea sustatzen

IMQ Igurcon irmoki sinisten dugu laneratzea sustatzearen garrantzian.

Horregatik, modu aktiboan lan egiten dugu kalteberatasun-egoeran edo gizar-te-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea eta laneratzea sustatzen duten enpresekin, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztenekin.

2024an, erakunde hauekin lankidetzan aritu gara berriro:

► IGON

Enplegu Zentro Berezia (EZB) da, eta desgaitasun fisikoa eta/edo sentsoriala duten pertsonak biltzen ditu Bizkaian, haien laneratzea sustatzeko eta, gainera, gizar-tean erabat integratzea lortzeko. Alde horretatik, IMQ Laguntza eta telelaguntzako telefono bidezko arreta-zerbitzuez hornitzen gaitu IGONek. Gaur egun, +10 pertsonak lan egiten dute zerbitzu horietan.

► Lavanindu

Enplegu Zentro Berezia (EZB) da, eta bere helburua da jarduerak ekonomikoa sortzea, ikuztegi industrialaren bidez, gaixotasun mentala duten pertsonekin, horiek gizarteratzeko eta laneratzeko. Aurten Lavanindu enpresako ~ 15 pertsona izan ditugu gure zentroetan ikuztegia kudeatzeko.

► Bidaideak

dibertsitate funtzionala eratuta duten pertsonen erakundea da, eta **minusbaliotasunak sortzen dituzten pertsonen parte-hartze soziala berdintasunezkoa izatea** eragozten duten elementuak desagerraraztea du helburu. IMQ Igurcori Eguneko Zentroen garraio-zerbitzua ematen diote, eta bertan +15 pertsonak laguntzen dute.

Lankidetz horiei esker, **IMQ Igurcon erantzukizun sozialarekin dugun** konpromisoa berresten dugu, dibertsitate funtzionala duten pertsonen % 7 inguru kontratatuta. Aliantza horiei esker, gizar-te bidezkoago eta inklusiboago bat garatzen laguntzeaz gain, gure lan-ingurunea aberastu dezakegu, hainbat ikuspegi eta talenturekin.

07 KOMUNIKAZIOA ETA GARDENTASUNA

Gure jakinarazpenak
+1.941 hartzailerengana
iristen dira

2024
+ 449 Langile
+ 1.086 Familiako
+ 406 Preskriptore

256
bidalketa
langileei

287
bidalketa
familiakoei

46
bidalketa
preskriptoreei

Bidalketak guztira 2023an: **192**

Bidalketak guztira 2024an: **310**

APP Egoitza Gardenak

Familiak **denbora errealean** ezagutu ahal izango dituzte egoiliarren egoerari eta zainketari buruzko berrikuntza guztiak.

- Eguneroko jarraipena: jarduerak.
- Arreta eta zainketa plana.
- Tratamentu eguneratua.
- Konstanteak eta neurketak.
- Online hitzorduak.
- Jakinarazpen korporatiboak.
- Gorabeherak.

APParen erabiltzaileak



843
Familiako



598
Egoiliar

%83
APP duten
egoiliarrak

08

EZAGUTU
NAHI ZAITUGUGure zentroak zure zerbitzura
daude, **baina helburua zu zara**

Deitu edo posta elektronikoz idatz diezagukezu, eta gure zerbitzuei buruzko informazioa emango dizugu eta zure zalantza edo kontsulta guztiei erantzungo diegu. Gure edozein zentrotara ere etor zaitezke, eta pozik emango dizugu arreta.

**IMQ Informazioa eta
Harremanetarako**

Tel. 94 662 04 00 · imqayuda@igurco.es
k/ Máximo Aguirre 18 bis, 6, solairua
48011 Bilbao (Bizkaia)

IMQ Igorco Egoitzak**Alhóndiga**

Tel. 946 62 04 00
Concha Jenerala kalea, 22,
48010 Bilbao (Bizkaia)

Bilbozar

Tel. 94 679 27 41
k/ Vitoria Gasteiz, 12
48003 Bilbao (Bizkaia)

Forua

Tel. 94 625 60 73
Elخالde auzoa, 34
48393 Forua (Bizkaia)

Jose M^o Azkuna

Tel. 94 630 99 55
k/ Jose Antonio Aguirre z/g
48340 Amorebieta
(Bizkaia)

Orue

Tel. 94 630 05 50
San Migel de Dueda
auzoa, z/g
48340 Amorebieta-Etxano
(Bizkaia)

Unbe

Tel. 94 453 70 02
Gorri bidea, 2
48950 Erandio (Bizkaia)

Zorrozgoiti

Tel. 94 474 25 36
Zorrozgoiti bidea, 23
48013 Bilbao (Bizkaia)

Araba

Tel. 945 14 21 00
Salbaterrabide kalea, 9
01007 Vitoria-Gasteiz
(Araba)

IMQ Igorco Eguneko Zentroak**Aiboa Getxo**

Tel. 94 465 94 44
k/ Ormetxe, 22
49992 Getxo (Bizkaia)

Bilbozar

Tel. 94 679 27 41
k/ Vitoria Gasteiz, 12
48003 Bilbao (Bizkaia)

Estartetxe Leioa

Tel. 94 480 35 68
k/ Estartetxe 2, 4, 6 behea
48940 Leioa (Bizkaia)

Etxaniz

Tel. 94 662 05 35
Marcelino Oreja kalea, 3
48010 Bilbao (Bizkaia)

Mungia

Tel. 94 662 07 48
k/ Olalde Beresia n^o 3A,
Beheko solairua
48100 Mungia (Bizkaia)

Ondarroa

Tel. 94 603 60 63
k/ Iñaki Deuna, 21 Behea
48700 Ondarroa (Bizkaia)

Otxarkoaga

Tel. 94 459 81 54
k/ Zizeruene, 4
48004 Otxarkoaga (Bizkaia)

Plazakoetxe Galdakao

Tel. 94 457 34 91
Plazakoetxe, 3. txaleta
48960 Galdakao (Bizkaia)

San Adrián

Tel. 94 470 07 06
San Adrián etorb. 33, 35,
37 Behea
48003 Bilbao (Bizkaia)

Ugao-Miraballes

Tel. 94 648 29 52
Udiarraga, 79 Behea, El
Jaro auzoa
48490 Ugao-Miraballes

Zorrozgoiti Zorroza

Tel. 94 425 36 54
k/ Zorrozgoitibidea, 23
48013 Bilbao (Bizkaia)

IMQ Igurco

Zu zaintzen

Lanean dihardugu adineko pertsonak eta haien senideek esku onetan daudela senti dezaten.

2024eko Memoria Korporatiboa
